

<b>IMH</b> <b>Elgoibar</b> <b>2009/10/22</b>	<b>HITZALDIA</b>
	<p style="text-align: center;"><b><u>"Norena da Euskara-Plana?" Zenbait gako ahalmentzeaz.</u></b></p> <p style="text-align: center;"><b>Erakundea:</b> <u>Elhuyar Aholkularitza</u>  <b>Hizlaria:</b> Felipe Iñarra, teknikaria</p>
<div style="display: flex; justify-content: space-between;"> <div style="text-align: center;"> </div> <div style="text-align: center;"> </div> </div>	

### Sarrera

Norena da euskara-plana? Zenbait gako ahalmentzeaz / Euskara-planetan, euskararen kudeaketaz arduratzeko garaian, enpresa edo erakundeek dituzten moduak kezkatu izan gaitu aspaldian. Ahalmentzea, empowermenta, ahalduntzea, jabekuntza... deitzen diogu horri. Aurretik, berariaz ez bazen ere, ahalmentze-moduak eta -mailak aztertzen eta bideratzen genituen. 2004az geroztik, ordea, ahalegin kontziente baten bidez ahalegindu gara bidea egiten. Ahalegin horren fruitu izan zen Euskara-planak: nondik gatoz, non gaude eta nora goaz liburua. Aurten harago egin nahi izan dugu, eta bezero ditugun 8 enpresaren testigantza jaso nahi izan dugu: Bankoa, Elay, Elkargi, EJIE, Eroski, Maier, Orkli, eta Tekniker. Zortzi enpresetako partaideekin ahalmentzean eragiten duten faktoreak identifikatu eta ondorioak atera ditugu. Enpresa bakoitzetik euskara-planean parte hartu duen kide bat eta parte hartu ez duen beste bat izan ditugu gurekin lanean. / Emaitzak, Baionan aurkeztu genituen lehenengoz. Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako Euskara lan-munduan... lanean! saioetan. Urriaren 22an, zuenean, horren eta gaiak ordutik izan duen garapenaren berri emango dugu.

### Laburpena

- Ahalmentzea: erakundeko kideek plana bere egitea.
- Zertarako: Plana iraunkorragoa, moldagarriagoa, bereganatzeko, sistematizatzeko.
- Faktoreak: parte-hartzaileak, faseak, komunikazioa, hiztun-kopurua, dedikazioa, koordinatzailea, testuinguru sozio-ekonomikoa, zuzendaritza, pertzepzioa.
- Errespetua, ilusioa, sormena eta erakargarritasuna landu.
- Zuzendariak eredu.
- Lanak eta helburuak jartzerakoan zehatzak eta neurtuak. Euskara planek enpresako beste planek bezala funtzionatu behar dute: planifikatua, helburuak, jarraipena eta oker doazenak zuzendu.
- Fasearen arabera helburuak, eta helburuen arabera baliabideak eta dedikaizoak.
- Euskararen balio erantsia ikustarazi.
- Euskaldun askok ez diote baliorik ematen euskarari.
- Hiztun kopurua muga da, baina beti egin daiteke zerbait.
- Koordinatzailea giltzarria da.
- Lan egoerarik hoberena tartekoa da: ez gutxi eta ezta asko ere.
- Plana egoerara moldatzeko gai.
- Goitik behera eta behetik gorako planak.
- Planez kanpokoekin iritzia, ikuspegia eta komunikazio landu.
- Enpresak euskara zertarako behar; horren arabera plana.
- Euskaraz lasaitasunez aritzeko aukerak eskaini.